

Emakumeak harri-jasotze mendean hartzen ari dira

Arabako Harria klubeko hiru harri-jasotzaile urte amaieran egitekoa den Euskadiko txapelketan lehiatuko dira lehen aldiz. Harri-jasotzearen alorrean mugarrria izango da gure probintzian, emakumeak protagonismo handia hartzen ari baitira.



Antzinako tradizio baztertzailaren eta ikusezintasun-urteen ondoren, oso bes-telako panorama ireki da emakumeentzat herri-kirolen eremuan. Izan ere, gizon indartsuentzako euskal kirola emakume indartsu eta prestatuei atek irekitzen hasi da. Herri kirolen alorreko 18 modalitateetatik –historikoki, baserriko lan gogorren ondorengo direnak– bakarrik pare batean aritzen ziren emakume gutxi batzuk. Haietariko bat harria izan da.

Harri-jasotzea oso jarduera zaharra da, indarrak neurtzeko modu bat, ia unibert-sala. Familia-eremura edo baserri eta harrobien ingurura mugatutako erronka bat zen, duela 100 urte plaza publikora jauzi egin zuen arte. Une hartan ezarri ziren lehiaketaren oinarriak, eta harrien formak eta pisuak finkatu.

Arteondo baino lehenagoko garaiei buruz gutxi dago idatzita. Hain zuzen ere, jasotzaile horrek eraman zituen harriak plazara erakustaldietarako, eta hark zehaztu zituen harriaren pisu eta neurri "klasikoak". Hura iritsi arte, erronkak ez ziren ikuskizun programatu eta arautuak izan.

Ordura arte erabilitako forma irregularreko harri zatiek, harginek arbatatutik, lau forma geometriko hartu zituzten: zilindroa, kuboa, esfera eta laukizuzena.

Forma zilindrikoa pisu txikienetarako erabili zen: 8, 9 eta 10 arroa, hau da, 100, 112,5 eta 125 kilo; harri kubiko eta laukizuzena 10 eta 17 arroa artekoa da (125 kilo eta 212,5 kilo, hurrenez hurren), eta tarteko pisu ohikoenak 137,5, 150, 163,5, 175, 187,5 eta 200 kilokoak dira. Harri esferikoa, bola deritzona, 9 eta 10 arroakoa izaten da.


AITZINDARIA



Dámasa Agirregabiri (Gipuzkoako Artxibo Nagusia)

1935eko urtarrilaren 20ko argazki batean Dámasa Agirregabiria izeneko emakume bat ageri da; hura izan zen lehen emakume harri-jasotzailea arlo horretako adituen arabera. Gaztea Eibarko kale batean dago, zortzi arroako harri zilindrikoa (100 kilo) altxatzen, ondoan Santos Iriarte "Errekar-tetxo" harri-jasotzaile azpeitiarra duela. Ia mende bat geroago, garai batean ia bitxikeria izan zena errealitate bihurtu da, emakumeak pieza astunekin ausartzen baitira, eta beren trebetasunak plaza eta txapelketa ofizialetan erakusten baitituzte. Ez da goiz bateko lorea. Harri-jasotzaileak irauteko etorri dira.

Arabian, hiru emakumek historia egitea erabaki dute. Duela urtebetetik, Arabako Harria Eskolaren arima Ibon Murgaren eskutik, lehiaketara behin betiko jauzi egiteko prestatzen ari dira, alegia, Euskadiko txapelketa. Bitartean, erakustaldi eta plazetara deitzen diete, ikuskizunaren parte gisa. Saioa Delgado, Eider García eta Sara Jiménez de Aberásturi dira emakume horiek.





“Crossfitetik nator. Egun batean jakin-mina sortu zitzaidan, probatu egin nuen, eta orain arte”

Saioa Delgado. Mercedeseko langilea. 33 urte

Goiuri herrian (Araba) aritu zen plazan lehen aldiz. Harria ez altxatzeko edo erortzeko beldurra zebilkion buruan. “Hasieran beldurra ematen zidan harria ez altxatzeak, urduritasunagatik. Harria erortzeko beldur nintzen. Besteak baino herabeagoa naiz, eta jendearen aurrean egoteak lotsa handiagoa ematen zidan, ez nuelako barregarri geratu nahi”, aitortu du.

Urtebete lanean aritu ondoren, argi dauka teknika dela kirol honen gakoa. “Atzera egin behar duzu harria zure gorputzera etor dadin, aldaka, zango eta beso kolpea jo, eta gorputza ez mugitu harria zuregana etorri arte”, azaldu du Langraiz Okan bizi den kirolari horrek.

Esarak dio asko dezakeela eskuak, baino gehiago buruak; hala ere, harri laukizuzenarekin 95 kiloko errekorra lortu du.

Hirurak ohikoak dira jada Arabako hainbat herritako plazetan. Azken erakustaldiak Arrentiako zelaietan eta Estibalzko santutegian egin dira, San Prudentzio eta Estibalzko Andre Mariaren jaiak direla-eta.

Abuztuan, Arabako hiriburuko Foru plazan ere ikusiko ditugu, Andre Maria Zuriaren jaietan herri-kirolek duten lekuan.



“Ez gara aitzindariak, Araban emakume jasotzaile gehiago egon direlako, baina bidea irekitzea espero dugu”

Eider García. Erizaintzako laguntzailea eta entrenatzaile pertsonala. 29 urte

Nortasun handiko emakumea da. Errugbi jokalaria eta animal floweko instruktorea izateaz gain, abenturaren eta erronken aldeko grinak EITBren “El Conquis” programan parte hartzera eraman zuen.

Badaki historia egiten ari direla, baina gogoan du haien aurretik beste emakume-belaunaldi batzuk ere ausartu zirela pisu desberdinetako harritzarrak altxatzea. “Orain arte, bazen estigma zahar bat: harria ez zegoen emakumearentzat egina. Gizonezkoen kirola zen, indar handia zuten gizon handiena, eta emakumeak ez zuen lekurik horretan. Duela gutxi, Gipuzkoan eta Bizkaian zenbait neska ateratzen hasi ziren. Araban, orain arte, batzuen batzuk ukitu dute harria, baina bakar batek ere ez da lehiaketetan edo plazetan jardun, ezta markarik egin ere. Bidea urratzea espero dugu”, adierazi du.

Ez du bere debut ofiziala ahazteko.

“Izarran izan zen, bertan Izarra Rural Boxing antolatuta ohi baitute. Lagunarteko boxeoko lehiaketa da, eta harri-jasoketaren erakustaldia ere egitea eskatu zuten”, gogoratu du.

Bere prestaketari eta konstantziari esker, Barojako arabarrak 100 kiloko laukizuzena jasotzea lortu du.



“Orain emakumea plazara ateratzen hasi da, baina baserrietan bazeuden lanean harria altxatzen zuten emakumeak”

Sara Jiménez de Aberásturi. Unibertsitateko irakaslea. 25 urte

Hiruren arteko gazteena da. Dena abiadura supersonikoan doa bere bizitzan. Mondragon Unibertsitateko irakaslea da, eta buru eta bihotz harri-jasotzeari emana dago, Maeztuko txingekin hasi bazen ere.

Diziplinatua eta beti irribarrez, astero joaten da Aranaldeko kiroldegiko harri-tokira: diziplina horretarako egokitutako galdara-gela bat. “Gu hona iritsi ginen eta ez zegoen emakumeek mugitzen dituzten pisuetako harririk. Euskadiko lehiaketako harriak dira 75 kiloko zilindroa, 62,5 kiloko kubikoa eta 62,5 kiloko bola. Hori Euskadiko lehiaketan. Probintzietakoetan, adibidez, aurten Araban, hiru forma horietako harriak erabili dira, 63 kilokoak. Neska askok, hasten direnean, 50 kiloko zilindroa erabiltzen dute, eta guk 75 kilokoarekin hasi behar izan genuen. Teknika lantzeko hori ez da egokiena. Lehenengo aldietan, atzera egiteko beldurra galdu behar duzu”, azaldu du.

Goiurin Saioarekin batera egin zuen debuta grabatuta geratu da. Ez hainbeste altxatzen duen pisua. “Laukizuzenean, 87,5 kilo, baina ez zaizkit harri handiak gustatzen, kolpeka altxatu behar direlako, eta oraindik ez daukat konfiantza nahikorik nire bizkarrean. Nahiago ditut txikiak, denboraren eta jasoaldien arabera neurtzen baita”, adierazi du.

Informazio gehiago:

Arabako Herri Kirolen Federazioa

arabaherrikirolak@gmail.com

657798869